



DANI BLANCO

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦

Zer egingen du Parisek?

HAUXE, denen ahotan dagoen galdera: zein izanen da Frantziako Estatuko erantzuna Iparraldeko jendarte sektore desberdinek eta tendentzi guztietako hautesiek indar biziz plazaratzen duten Lurralde Elkargoaren eskaerari? Pasa den urriaren 11n deszentralizazioaz arduratzen den Lebranchu ministroak Euskal Herriko delegazioa errezibitu zuen, baina afera ez zuen argitu.

Iparraldearendako instituzio baten sortzea objektiboki errazago da gaur egun, batere segurtatua ez bada ere. Jendarteko eragile askoren jarrera segituz, hautetsien artean ere aldeko iritzia azkarki zabaldu da azken hilabeteetako gogoetak aitzinatu arau. Orain arteko dispositiboak gaindituak dira gehien ustetan, eta frantses legedian tresna juridiko egokiak badira, zerbait berezia asmatu gabe. Aieteko Konferentziak ireki aro berriak desagerrarazi du borroka armatuaren aspaldiko aitzakia.

Panorama horri gehitzen badiogu gobernamentuaren deszentralizazio asmoa, ez da dudarik 1981etik hona koiunturarik hobereana bizitzen ari garela. Baina aski ote da zerbaiten lortzeko? Krisi ekonomikoak sortzen dituen desafioen ondoan bigarren mailan gelditzen da auzia. Ipar Euskal Herriak pisu gutti du Paristik ikusita eta gainera frantses goi-kargudun batentzat kudeatzeko zaila den dimentsio geopolitikoa badu, Korsikan

edota Britainian ez dagoena. Iparraldea instituzio baten bidez ezagutuz ez ote da prozesua kontrol ezi-nean abiatuko, Frantziar Errepublikak zati txiki hori, Euskal Herri osoko zati bilakatuz?

Ikustekoa da ere zein puntutaraino esku hartuko duen Espainako Gobernuak. Urteetan Madrilek Frantzia presionatu du Iparraldea ez dezan ezagutu, terrorismoari amore ematea izanen zelakoan. Gaur egun bide beretik doala dirudi. Euskal delegazioa ministroaren bulegotik atera bezain laster, Madrilek bere kezka jakinarazi dizkio Frantziako Barne Ministerioari, EITBko errepor-tajearen arabera, Lebranchuk delegazioari Lurralde Elkargoa hitzeman omen ziolako.

Denbora berean, buruzagi sozialis-tek errepikatzen dute frantses antola-mendua malguago bilakatu nahi dute-la eta lurraldez lurralde egokipen instituzionalak egiten ahalko direla.

Are gehiago, Alsaziako instituzio guziak batzea onar-tu du Frantziako Gobernuak eta ez ditu baztertzen Korsikako eboluzio instituzionalak edota Britainiako lurralde historikoak berbatzeko aukera. Ipar Euskal Herria erantzunik gabe geldituko den lurralde bakarra izanen ote da? Eta bere herritarrak euskaldun izateagatik berriz ere mesprextatuak? ■

Euskal delegazioa ministroaren bulegotik atera bezain laster, Madrilek bere kezka jakinarazi dizkio Frantziako Barne Ministerioari



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Nebraskak 30 urte

BADU BERAZ hiru hamarkada Bruce Springsteenek *Nebraska* albuma entzuten dugula ekialdetik sortaldera iparraldea gauzez zeharkatzean! 1982an atera zen Ronald Reagan amerikar lehendakariak Milton Friedman bere adiskidearen Naomi Kleinek aztertuko zuen *shock doctrine* hura martxan jartzen hasi zenean, urteak joan ahala dakizkigun ondorio likitsek, jendal-deak are pobregotzeko baliatzen den krisia ekonomikoa ardatz. *The Boss* erraldoiak orduan marrazten zituen pertsonaiak beranduago Tom Joad-en inguma CDan berraurkituko genituen, biluzik, esku hutsik, subprimen arazoaren karietara guztia

galdurik, kotxea, etxea, segurantzak, pensioak. Uholdeak eraman zituen.

Ez dakit, gaztaro alderraia gogoratzen edo oraindik atzo bailitzan aditzen dudalako, *Nebraskako* abestiek begia bustitze-raino ukitzen naute: neoliberalismoa desastre kolektiboa izan zen Atlantic City-ko Casinoan dirua jostatzeraz eta bere gorputza saltzen bukatuko zuenarentzat. Bizitza puska bedera beltza da, etorkizunik gabea, baina diskoko azken melodia lanzinanteak dioenez altxatzen den azkorri bakoi-tzean *people find some reasons to believe...* ■

